



TOPONIMIA BATZORDEA

**2018-2020 urteetarako Jarduketa-planaren
proposamena**

Vitoria-Gasteiz, 2018ko urtarrilaren 18a

EAEko Izendegi Geografikoa kontsulgai jarri

EAEko Izendegi Geografikoa kontsultatzeko web-gunea martxan jartzea.

Helburua: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak elikatzen duen EAEko Izendegi Geografikoa kontsultatzeko web-gunea euskadi.eus atarian jartzea.

Deskribapena: EAEko Izendegi Geografikoan dagoen informazioaren gainean mota desberdinetako kontsultak egiteko balioko duen web-gunea amaitzen ari da HPS.

Web-gune horrek GeoEuskadiren zerbitzuak erabiliko ditu eta zerrendak bistartzeko eta deskargatzeko aukera emango du, besteak beste.

Proposamena: EAEko Izendegi Geografikoa kontsultatzeko web-gunea amaitzen denean, euskadi.eus atarian jartzea eta horri zabalkundea ematea.

Data: 2018ko abendurako amaituta egotea espero dugu.

Egilea: HPS



EAEko Izendegi Geografikoa zuzendu, osatu eta eguneratzeari begira lan-metodologia onartzea

EAEko Izendegi Geografikoa ardatz hartuta, lan-metodologia onartzea eta bideratzea.

Helburua: Euskal Autonomia Erkidegoko Izendegi Geografikoa eguneratuta edukitzea, horko informazioa GeoEuskadik eta IGN-k (Instituto Geográfico Nacional) erabiltzen dutelako eta, horrenbestez, zabalkunderako bide nagusia delako. Helburu nagusi horri begira, lan-metodologia bat landu eta onartzea proposatzen da.

Deskribapena: EAEko Izendegi Geografikoan jasota dagoen informazioa eguneratuta eduki behar da, herritarrek zein erakundeek dituzten beharrei erantzuteko momentuan eraginkorra eta erabilgarria izatea nahi badugu.

Baina, toponimiaren gaineko eskumenak oso banatuta daudenez (udal, foru-aldundi, Eusko Jaurlaritzaren eta IGNren artean), EAEko Izendegi Geografikoa eguneratuta edukitzeko nahitaezkoak dira inplikaturik dauden erakundeen arteko lankidetzak eta koordinazioak. Toponimia-lana kudeatu eta modu eraginkorrean bideratzeko lan-metodologia bat onartzea ezinbestekoa da.

Proposamena: Ikus "Lan-metodologia" dokumentua web-orriaren 4. atalean.

<http://www.euskadi.eus/eaeko-toponimia-onomastika/web01-a2corpus/eu/>

Data: 2018ko ekaina (Toponimia Batzordearen 2018ko hurrengo bilera-eguna).

Egilea: Toponimia Batzordea



Biztanleguneen izen ofizial desegokien aldaketa bultzatu eta izen ofizial berriei zabalkundea ematea

Biztanleguneen izen ofizial desegokien aldaketa bultzatu eta izen ofizial berriei zabalkundea ematea.

Helburua: EAEko biztanleguneen izen ofizial desegokien aldaketa bultzatzea eta izen ofizial berriei zabalkundea ematea. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak egin izan du eta egiten du lan hori.

Deskribapena: Euskararen Legean toponimoak ofizialtzeko finkatutako irizpidearen arabera, izen ofiziala aldatzeko premia ikusten den kasuetan, udalerrien eta biztanleguneen izen ofizialak zuzentzeko edo EAEko hizkuntza ofizial bietara egokitzeko, azken urteotan egindako lanarekin jarraitu behar da. HPSren aldetik, izen ofiziala aldatu nahi duten toki-entitateei espedientearen izapideak burutzeko laguntza eskaintzen zaie.

Bestalde, aldatutako izenei buruzko informazioa zabaltzen eta jakinarazten segitu behar da herri administrazioei izen ofizialen gaineko informazio eguneratua izan nahi dutela adierazi duten bestelako erakunde, enpresa edota pertsoneri. Azkenik, toponimia ofizialaren erabilera okerra dela-eta jasotzen diren kexa eta oharrak bideratzen jarraituko dugu.

Proposamena: Lan hau egiteko zailtasunak daudenean, erakundeen aldetik erantzunik jasotzen ez delako, Toponimia Batzordeko kideren baten laguntza beharrezkoa izan liteke egoera desblokeatzen saiatzeko.

Data: Etengabe

Egileak: HPS, aldundiak eta udalak



Toponimoak finkatzeko irizpideak lantzea

Toponimoak finkatzeko irizpideak landu, Toponimia Batzordeak onar ditzan

Helburua: Zenbait toponimok sortzen dituzten arazoez eztabaidatzea eta irizpideak finkatzea.

Deskribapena: Zenbait kasutan ez da erraza izaten leku-izenen forma lehenetsia finkatzea, irizpide sendorik ezean. Hori dela eta, 2 lan-talde eratuko dira irizpide linguistikoak, soziolinguistikoak eta kartografikoak finkatzeko. Ondorioak Toponimia Batzordearen aurrean aurkeztuko dira, onespena jaso dezan.

Adibideak:

- “Genitibo marka + apelatiboa” egitura duten leku-izenak: *Goikogaña / Goiko gaina* (tontorra, Lasarte-Oria)
- Alonimoak dituzten leku-izenak: *Txindoki / Larrunarri* (mendia, Aralar)
- Mendien eta mendi tontorren errotulazioa, eskalaren arabera: *Gorbeia* (mendia) / *Gorbeiako gurutzea* (mendi tontorra)

Proposamena: 2 lan-talde eratzea Toponimia Batzordearen barruan irizpideak lantzeko eta Batzordeari proposatzeko.

Data: 2019

Egilea: Toponimia Batzordea



EAEko Izendegi Geografikoaren zabalkundea egin

Izendegi Geografikoa erabiltzaile guztiengana heltzeko bideak aztertu.

Helburua: Bideak finkatu behar dira EAEko Izendegi Geografikoa erabiltzaile potentzial guztiengana heltzeko, hala nola, Eusko Jaurlaritzako sailak, aldundiak, udalak, erakunde publikoak, enpresak, posta eta telefonía zerbitzua eskaintzen duten erakundeak eta, herritarrak, oro har.

Deskribapena: Ezin konta ahala momentu, arlo eta egitasmoetan erabiltzen da toponimia, erakundeetan nahiz herritarren artean. Hala ere, sarri askotan bakoitzak bere erara erabiltzen du ez dakielako zein den forma zuzena, ez eta nola topa dezakeen. Toponimia Batzordeak forma lehenetsiak jakinarazteko eta zabaltzeko bideak aztertu eta finkatu behar ditu.

Proposamena: Batetik, metodologia bat finkatzea EAEko Izendegi geografikoa ezagutarazteko. Bestetik, dibulgaziozko argitalpenak bultzatzea leku-izenen balioa nabarmentzeko eta erreferentziazko izen zuzenak zabaltzeko, "Gure leku-izenen historia: Toloño mendilerroa" liburuxkaren bidetik.

Data: Etengabe egiteko lana.

Egilea: Toponimia Batzordea